

## Kapitalaren krisiaren aurrean...Herri Errepublika (Abenduaren 6an...Erantzun Errepublikarra)

### Kalera, bada-eta garaia!

Estatu espainiarreko **Langileok eta hiritarrok, 78ko Konstituzio Monarkikoa IRUZURRA da**, eta iruzurra da 1. artikulutik, esaten baitu “**Eskubideen Estatu Sozial eta Demokratikoa**” defendatzen duela. Errepublikazaleok ozen esaten dugu hori **GEZURRA** dela, eta hona **ZERGATIK...**

Alde batetik, **benetan 4.600.000 langabetu** daude; hots, biztanleria langilearen **%20**, eta milioi eta erdiek ez dute ezer jasotzen, eta milaka eta milaka laguni etxea utzarazi diote, ordaindu ezin dutelako... eta bestetik, Gobernuak **milioika eta milioika euro** eman dizkie bankari eta enpresaburuei (bilioi batzuk pezeta).

**Kapitalaren errentak** zergen %18a ordaintzen dute, eta **lanekoak**, berriz, %24tik 43ra bitartean... **Fortuna handiek** %1 SOILIK ordaintzen dute.

Gobernuaren zerga-neurri berriak **BEZ igotzean** oinarritzen dira (zerga hori txandako Botin horiek ez ezik langabetuek ere ordaintzen dute)... Eta horrek langileak kaltetzen ditu batik bat.

Osasungintzan eta Hezkuntzan **Gastu Publikoa** EBko batezbestekoaren erdia da, eta Zerga Iruzurra, berriz, 1.000 milioi eurotik gorakoa da... Kapitala urrats erraldoiak ematen ari da Osasungintza eta Hezkuntza **pribatizatze**ko.

**GEZURRA da**, izan ere, Eliza Katolikoak, bere Unibertsitateak eta Ikastetxe hitzartuak finantzatzeko, guztion dirutik urtean 3.800 milioi jasotzen dituen bitartean, erlijio irakasleriaren kostua 550 milioitik gorakoa da ikastetxe pribatuetan eta publikoetan, eta Gobernuak urtean 750 milioi euro barkatzen dizkio Eliza Katolikoari zergetan... Irakaskuntza publikoa egunetik egunera okerragotzen ari da, eta hori 1979an berritutako 1953ko **Aulki Santuaren Konkordatuari** esker gertatzen da.

**Pentsioen %41a** pobreziaren atarian daude...eta bankariak 55 urterekin jubilatzen dira, urtean hiru milioi euro kobratuz.

Poliziak paperik gabeko immigranteak atxilotzen ditu, eta Atzerritarrentzako Integrazio Zentroetan pilatzen ditu baldintza penagarrietan...

Bestetik, Espainiako 10 multinazional handienek 2008an, **310.000 milioi eurotik** gorako diru-sarrerak lortu zituzten, hain zuzen gure immigranteen jatorriko herrialdeetatik lortu ere.

Izan ere, alde batetik, Gobernuak **langabetuentzat** aurreikusi duen ordainketa urtariletik aurrerako **420 euro** lotsagarri horietan gauzatzen da, 1.300 milioiko ordainketa eginda... eta bestetik, **gastu militarra**, inbertsioetan bakarrik, 4.080 milioi eurokoa izango da 2009an.

**Noiz arte segi behar dugu AMORE EMATEN** Konstituzio Monarkikoaren aurrean?, “**Justiziaren eta Berdintasunaren**” gainean dituen balio **murriztaileetan** babestuz zera eragiten du:

**Egoera ekonomikoa** unez une ahultzen du, hiritarren erosteko ahalmena okertuz doa, enplegu gutxiago sortzen da, milaka langilek beren **lanpostuak** galtzen dituzte eta lan-ezbeharren kopurua EBko altuena da.

**Gazteria** babesik gabe dago, **familiatik emantzipatzeko** eta lanbidean garatzeko aurrera egitea ahalbidetuko dien benetako politikarik ez dagoelako.

**Emakumeak** etengabean jarraitzen dute gizonetikiko “**benetako berdintasunaren**” alde aldarrikatzen.

Hamar milaka **fusilatu errepublikarrek** bide bazterretan segitzen duten bitartean, oraindik baliogabetu gabe segitzen dute epaimahai faxisten epaiak, ondoriorik gabeko **Oroimen Historikoaren Legeari** esker.

Kartzelak delitugile txikiez beteta daude, eta lapur handiak, bankariak, espekulaztaileak eta gansterrak lasai-lasai dabilta poltsetan, administrazio-kontseiluetan, desfileetan eta ekitaldi ofizialetan.

Edo **eskuin muturreko** taldeek, Diktadura kriminalaren oinordeko genetiko eta politikoez, inolako zigorrik jaso gabe jarduten segitzen dute. **Noiz arte segitu behar dugu JASATEN aginduzko “Antolamendu Juridikoaren”** izenean Erregea daukan Konstituzio Monarkikoa. Erregea, hain zuzen,

Francok izendatu zuen, eta **Mugimendu Nazional Faxistaren Printzipioak** defendatuko zituela zin egin zuen, eta horregatik ez du Konstituzioa zin egin.

Errege hau erbestetik itzuli zenean, Errepublikak familia erbesteratu baitzuen, inolako ondarrerik gabe iritsi zen, eta gaur egun, Europako **20 lehenengo fortunetan** dago, eta inork ez ditu kontrolatzen haren diru-sarrerak eta ez du zergarik ordaintzen haiengatik.

Errege honi, gainera, “xehetasun txiki” horiek ez diote galarazten **Ejerzitoaren Buru Gorena** izatea; ejerzitoko kideek, gainera –goi-epaimahaietako, poliziako, guardia zibileko eta administrazioetako goi-mailletakoak bezala– ez dute inolako garbiketarik izan, 40 urtetan diktaduraren sostengua izan baziren ere.

**Noiz arte MANTENDU** behar dugu Konstituzio Monarkikoa, zeinak “**Pluraltasun Politikoa**” ulertzeko era **berezi** horretan babestuz zera egiten baitu:

Herrien **Autodeterminazio Eskubidea** ukatzen du, eta ejerzitua izendatzen du aberriaren batasunaren berme gisa.

**Ezker abertzaleari** eta ordezkaten dituen milaka eta milaka laguni edozein ordezkaritza politiko galarazten dio; egunkariak eta irriatiak ixten ditu eta ehunka euskaldun espetxeratzen ditu jarduera politikoagatik, Entzutegi Nazioanala bezalako epaitegi berezietan auzipetuta, zeina Ordena Publikoaren Epaimahai faxistaren oinordekoa baita; guztia, **Alderdien Lege** diktadurazkoaren pean, zeinak adierazpen-askatasuna murrizten duen 70eko urte faxistetan bezala.

Benetako **salbuespen-egoera** eragiten du Euskal Herrian, eta tortura oso zabaldua dago NBEk eta Nazioarteko Amnistiak salatzen dutenez. Salbuespen-egoera honetan, adibidez, gazte batek 16 urteko kartzela-zigorra jaso dezake kutzazain bat erretzeagatik, han duela sei baino gehiagoan jarraituz, eta bienbitartean, Rodriguez Galindo generalak, GALeko burua bera eta Lasa eta Zabala asesinatzeagatik 71 urteko kartzela-zigorra jaso zuenak, lau bakarrik bete zituen, eta orain, haren oroitzapenak ederki saltzen dira liburu-dendetan.

**Abenduaren 6ko** manifestaziora deitzen dugun **Erakunde Errepublikarrek** uste osoa daukagu bidegabekeria hauek guztiak Diktaduratik zutabeak ukitu gabeak dauzkan eta erregea buru den botere politiko, ekonomiko, militar, polizial, judizial eta mediatikoaren egituraren sostengatzen direla.

Instituzioetan egiten dituzten aurpegi-garbitzeekin engainatu nahi gaituzte, baina, egunez egun ageriago dago herriok ez dugula inolako boteretik eta krisi garaietan botere ekonomiko handiak etekinak ateratzen eta diru publikoa esku betean jasotzen segitzen dutela **langile-klasea** eta herri-sektoreak gero eta gehiago **ustiatzeko** aprobetxatuz.

Gertatzen zaigunari **ezer egin gabe** begira segitzen badugu norberaren salbaezin ezinezkoaren zain, esklabutzaren antzeko lan-baldintzetara helduko gara, eta osasungintza eta hezkuntza, ordaindu ahal dituenak soilik izango ditu, eta errepresioak eta gure askatasunaren zapalketak ez du azkenik izango.

MADRILEKO KOORDINAKUNDE ERREPUBLIKARREKO **Erakunde Errepublikarrak krisi ekonomikoaren irtenbide demokratiko eta herrikoiaren alde** borrokatzen gara, **kapitalista ez den** alternatiba baten alde, eta esaten dugu **KRISIAK IRTENBIDEA DAUKALA**, betiere **lanaren eta aberastasunaren banaketa** bidezkoagoa egiten bada.

Eta esaten dizuegu garaia dela guztiok geure egin dezagun aspaldiko beste kontu hau: **“KALERA, GARAIA DA ETA”**...zera eskatzeko:

- **Gizarte-babes** osoa eta enpleguarena langabetu guztientzat.
- **Zerga-erreforma**, gehiago dutenek gehiago ordain dezaten.
- **Bankaren nazionalizazioa**, eta ekonomiako sektore estrategikoena ere bai.
- **Kalitatezko enplegu publikoa sortzea. Etxebizitzak** guztiontzat.
- **Laguntzak eta luzamenduak** langabetuentzat eta errenta txikientzat.
- **Hezkuntza eta osasungintza** publikoak eta kalitatezkoak. Osasungintza pribatua diru publikoarekin **ez finantzatzea**.
- **Aulki Santuarekiko Konkordatua** kentzea. **Eliza-Estatuaren** arteko erabateko banantzea.
- **NATOtik irtetea**, baseak kendu eta kanpoan dauden
- **tropak itzultzea**.
- **Anmistia** preso politikoentzat.

**KAPITALAREN KRISIAREN AURREAN...HERRI ERREPUBLIKA!  
HERRIEN AUTODETERMINAZIO-ESKUBIDEAREN ALDE!  
ALDERDIEN LEGEA INDARGABETZEAREN ALDE!  
ESTATU LAIKOAREN ALDE!  
78-KO KONSTITUZIO MONARKIKOARI EZ!  
III. ERREPUBLIKAREN ALDE!  
2009ko abendua  
MADRILEKO KOORDINAKUNDE ERREPUBLIKARRA  
MANIFESTUA SINATZEN DUTENAK: .....**